

ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN 1. EPAITEGIAK 2025EKO URRIAREN 24AN EMANDAKO 190. EPAIAREN BERRI IZAN ETA GAUZATZEA

«IKUSI DA 190/2025 zenbakidun epaia, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak 2025eko urriaren 24an emana prozedura judizialeko 297/2024 zenbakidun autoetan, zeinetan hein batean baiesten baita Francisco Javier Iriarte jaunak Nafarroako Administrazio Auzitegiko 2024ko urriaren 23ko 1662. ebazpenaren aurka eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko azaroaren 27ko erabakiaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, industria-ingeniari teknikoaren plaza bat merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiaren hainbat egintzari buruz. Eta ikusirik txosten juridikoa, eta bai espedientean bai lotutako espedienteetan jasotako gainerako agiriak, ERABAKITZEN DA:

1.- Adieraztea Tokiko Gobernu Batzarrak izan duela Administrazioarekiko Auzien Epaitegiko epaiaren berri, zeinak baliogabetzen dituen Nafarroako Administrazio Auzitegiak 2024ko urriaren 23an emandako 1662. ebazpena eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko azaroaren 27an hartutako erabakia. Erabaki horretan, hein batean baiesten zen Antonio Izquierdo Somovilla izangaiak aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoa, 2024ko urriaren 9an argitaratutako merezimenduan baremazio berriaren aurkakoa.

2.- Baliokotzat jotzea bakarrik kalifikazio-epaimahaiak 2024ko urriaren 9an onetsi eta 2024ko urriaren 14an webgunean argitaratutako behin betiko emaitzak.

3.- Prozedura une horretara atzera egitea, 2024ko urriaren 9ra, eta prozesuak behin betiko emaitza horien arabera aurrera egin dezala. Hurrengo egintza betekizunak egiaztatzea eta plaza hutsak hautatzea da, eta hautatu beharreko plaza hutsa 1-200209-6 zenbakia duena da.»

4.- Agintzea ebazpen hau Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitara eman dadin.

Ebazpen honen aurka honako errekurtso hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:

- GORA JOTZEKO errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta hortik aitzina.
- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, BI HILABETEKO epean, ebazpen hau Iruñeko Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean.- Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Garbiñe Bueno Zabalza.